

Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 32. Zk.



aunkibidea

HERRIZ HERRI

Bastida	5
Biasteri	7
Bilar	12
Eltziego	14
Eskuernaga	15
Kripan	16
Iekora	17
Lantziego	18
Lapuebla de Labarca	19
Leza	20
Mendabia	21
Navaridas	22
Paganos	23
Uiana	24

ERREPORTAIAK

VII. Inkesta soziolinguistikoa	25
Euskararen unibertsalizazioa helburu...	29
Irulegiko eskuaren mitoak eta egiak	31

ELKARRIZKETA

Carlos Errazti Elorza	36
-----------------------	----

DENBORAPASAK

Denborapasak	38
--------------	----

NON GOGOIA, HAN ZANGOIA

Non gogoia, han zangoia	41
-------------------------	----

Zorionekoak izan gara Ttiki-ttakan 30 urte beteta, bagoaz 31.ean ere aurrera. Musean ez bezala, 31 eta eskutik gauden ala ez, ordea, zein betaurrekorekin begiratzen den izaten da.

Irulegiko eskuak zorioneko egin ditu asko, baina, Kike Amonarrizek Ttiki-ttakaren 30. urteurreneko hitzaldian esan bezala, euskararen magia inongo esku eta aurkikuntza zaharrek baino gehiago erakusten digu herri txiki batean nola mantendu den hainbeste urtez euskara ikusteak.

Berri pozgarriak ekarri dizkigu Eusko Jaurlaritzaren VII. Inkesta Soziolinguistikoak, ondorioztatu baitute euskararen ezagutza, gazteen arteko erabilera eta euskararekiko motibazioa eta atxikimendua asko igo direla azken 30 urteotan. Hala ere, zein betaurrekorekin begiratzen den, ezagutza-datuak zalantzan jarri gabe, erabilera-datuak ez direla hain baikorrak dioten ahotsak ugariak dira.

Botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusi, hor dago koska. Ttiki-ttakan betetzat jotzearen aldekoak gara. Izan ere, egin dena asko da, handia, baina egin zitekeena ere bai, eta zer esanik ez egin daitekeena.

Helduok badugu joera geuk egin ordez lanean besteak jartzekoa, eta gero haiei eskatu erantzukizuna, hau da, errua leporatu. *“Nik ikasi ez, baina seme-alabak euskal eredura eraman ditut; orain egin dezatela euskaraz”*. Erraza da besteri eskatzea, baina ikastetxeak euskaldundu dituen horiek beharra ikusteko eta sentitzeko ez da nahikoa ez dakit nork

eskatzea; bidea erraztu egin behar da, eta, horretarako, administrazioak askoz gehiago egin dezake eta egin behar du. Emaitza beste bat litzateke Arabako Errioxako Udalek lan-kontratazioetan, esaterako, euskara gehiago baloratuko balute. Bada garaia!

Arabako Errioxak Europako fondoetatik 5,5 milioi euro jasoko ditu turismoa bultzatzeko gure eskualdean. 26 proiektu finantzatu ditu, turismo jasangarria oinarri nagusia izango delarik. Benetan berri ona gure eskualdearentzat, baina euskarak zein leku izango du proiektu honetan? Bakarrik lelo edo izenburuetan agertuko da *Ardo party*, *Ardo Araba*, *Wine Euskadi* eta antzekoetan bezala, edo norbaitek pentsatu du gure eskualdeko turismoa bultzatzerakoan euskarak izan behar duen lekuz? Proiektu horietako enpresei dirulaguntza ematerakoan, norbaitek finkatuko die nola jokatu behar duten hizkuntzekin? Etortzen diren turistek Errioxan dauden sentsazioa izango dute? 5,5 milioitik zenbat € erabiliko dira euskara turismoan normalizatzeko? Ea gure hizkuntzari prestigioa emateko aukera beste behin ere ez dugun galtzen!

Aurten ere hauteskundeak! Euskararen legeak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 40 urte bete zituen iaz. Alegia, euskararen normalizazio bidean 40 urte daramatzagu gure eskualdean eta honako galderak bururatzen zaizkigu: aurkeztuko diren zenbat alkategaiek dakite euskaraz? Euskarak hautagaien programetan zenbateko lekua hartzen du? Euskara normalizatzeko ekintza zehatzak proposatzen dira? Kuadrillak zein asmo du datorren hamarkadarako? Zer egiteko dago prest hori betetzeko? Euskara

Ttiki-ttaka 2023

noiz izango da zeharkakoa kuadrillako sail edo eremu guztietan? Arabako Errioxako euskaltzaleon aldetik, bada garaia euskararen presentzia exijitzeko, bereziki administrazioan, eta salatzeke, legea betetzen ez bada. Beste 40 urte itxaroten egon behar dugu euskara gure eskualdean normalizatzeko “inor diskriminatu gabe”, “euskararengatik lana galduko du”, “hobe pediatria ona eta ez euskara dakien pediatria” eta antzeko esaldi nazkagarriak entzuten? Gure eskubideak geuk ez baditugu eskatzen...

Epel jokatzen du administrazioak, beldurrez: “Ezin eska liteke gehiegi euskaraz; bestela, epaiketetan sartuko gara”. Tristeia da, bai, zenbait epaileren jarrerak eta joerak nola harrotzen dituen hautsak ikustea, baina, batez ere, tristeia oraindik ere babes handiago ez izatea hizkuntza eskakizunek. Europar Batasuneko 27 estatuetatik 23k nolabaiteko hizkuntza-eskakizuna ezartzen diete beren biztanleei gutxieneko eskubide batzuk lortu ahal izateko, eta ez da eztabaidarik pizten.

Euskal Autonomia Erkidegoan asko bada egin zitekeena eta, beraz, egiteko dagoena, zer esan Nafarroaz. Lotsagarria da Nafarroan oraindik ere ofizialtasuna eskatzen aritu beharra.

Londresko parlamentuak irlandararen (gaelikoa) ofizialtasuna onartu berri du. Populazioaren %4 inguruk hitz egiten du gaelikoz Ipar Irlandan; egunerokoan, ordea, %0,2k erabiltzen du. Nafarroan ere VII. Soziolinguistika Inkesta aurkeztu dute eta han ere gora egin du ezagutza-datuak, hiru zonaldeetan gainera. Hemen, baina, manifestazioak egiten, sinadurak biltzen... Eta ez Espainiako parlamentuak ez duelako onartzen ofizialtasuna, Nafarroako Gobernuak nahiko gogo jartzen ez duelako baizik. Bada aldea!

Irakurle, jantzi betaurreko aproposak, zorionekoak, eta goza ezazu aldizkariaz, tipi-tapa, ttiki-ttaka bagoaz-eta egiten.



bastida.....

Bastidako Neskak Tipi-tapa



Zer gogo genuen berriz elkartzeko, emakume-sentimenduaren euforia berriro sentitzeko, oztopo, arau, itxialdi, maskara, bakardade, indibidualismo eta abarrez betetako pandemiaren ondoren. Bastidan, emakume talde bat, pilak kargatuta, gerra ematera gatoz. **BASTIDAKO NESKAK TIPI-TAPA**. Gaur egun oraindik indarrean dagoen taldea, “frontoi zaharreko neskak”, Bastidako frontoi zaharreko kantxan larrua uzten duen emakume taldea, sortu zuen Naiara Etxezarretak. Pandemia ostean gogoz ari dira. Naiarak, martxoaren 5ean, Donostian, emakumearen alde izango zen lasterketa korritzeko izena emateko esan zidan. Estatu mailan dagoen lasterketarik enblematikoenetako bat da **Lilatón**. Momentu horretan nik esan nion: “*Begira, Naiara, frontenisean jokatzeko arrastaka eraman ninduzun, baina lasterketa baterako... jakin ezazu animalia arriskutsu batek jazarriko banindu edo sute bat egongo balitz bakarrik egingo nukeela korrika*”. Barre egin zuen, eta esan zidan ez zela beharrezkoa korrika egitea, oinez ere egin genezakeela eta bere asmoa Bastidako emakumeen taldetxo bat elkartzea zela lasterketa horretara joateko eta guri ikusgarritasuna emateko. Eta horrek konbentzitu egin ninduen. Beraz, berriz ere, emakumea eta kirola ardatz hartuta, adin guztietako emakumeak elkartzen hasi ginen. **Lilatoi** izeneko whatsapp talde bat sortu zen; hasieran gutxi batzuk, baina haziz joan ginen, eta ibili eta korrika egin ahal izateak emakume ausart asko animatu zituen. Gainera, CaCo modalitatearekin entrenatzen hasi dira batzuk.

Hurrengo pausoa, Bastidako Udalaren laguntzarekin, kamiseta moreak egitea izan zen; moreak dira eta korrika egiten duen emakume baten silueta daukate. 250 kamiseta baino gehiago saldu ditugu jada. Bi eskaera egin dira eta, azkenekoa, Aste Santua pasatu eta gero itxi zen.

Iritsi zen Lilatonera joateko eguna, eta hara joan ginen; Bastidako emakumez betetako autobusa Donostiara, munduari geldiezinak garela, ezerk ez gaituela geldiarazten, egunero

Tfiki-ffaka 2023

hamaika trabari eta borrokari aurre egin behar dizkiegula, baina zutik jarraitzen dugula erakusteko gogoz. Kritikatuko gaituzte. Gaiztoak, sorginak, mozkorrek izan gaitetzke, baina ez gara ezkututzen. Bekatuak ditugu, eta onartu eta barkatzen dizkiogu elkarri; ez dugu emakume izateagatik inork epaitzerik nahi. Gainerakoek kobratzen dutena kobratu nahi dugu, gure bekokiko izerdiarekin irabazi ditugun lanpostuak bete nahi ditugu, dugun balioa ematea nahi dugu, kalera atera eta aske sentitu nahi dugu, ez dugu beldurrik izan nahi, ez dugu inork norekin joan eta nola jantzi behar den esaterik nahi. Askatasuna eta berdintasuna nahi ditugu.

Goizeko 10:30erako han ginen, eta **giro morea** zen nagusi. Korrika egiteko geure kamisetak hartu eta ikusgarri egin ginen. Mundua jantzi genuen gainean, kamiseta moreaz, eta korrika hasi ginen. Ez nuen inoiz hainbeste korrika egingo nuenik imajinatuko, baina emakume sentitzearen sentimenduak aurrera jarraitzeko indarra ematen zigun. Horrela amaitu genuen lasterketa, animo-oihu, batukada, musika eta txaranga erritmoan. Mokadutxo bat amaitzean, Bastidako nesken kamiseta harrotasunez jantzi eta elkarrekin lor dezakegun sentimendua.

Hortik, elkarrekin joan ginen bazkaltzera, egun bakar batean adiskidetu ginen eta bazkarian zehar domina jaso genuen **Arantza Toñá**rengandik (Lilatoiaren antolaketan inplikaturik hau ere), eta **Naiara**ren partetik. Merezitakoa bezain adierazgarria den domina. Eta ez lasterketa irabazteagatik bakarrik, baizik eta, beste behin ere mila gudu gehiago irabazteko prest gaudela erakusteagatik.

Zorionez, egun hori hasiera bakarrik izan zen. Talde horrek aurrera jarraitu du, eta gaur egun elkarte bat sortzeko gogoarekin mugitzen ari gara, eta kirola eta emakumea erlazionatuz aurrera egin dugu. Izan ere, irteera gehiagotara apuntatzen ari gara. Hilabetean behin edo bitan dauden irteerak antolatzen ditugu. Hauek izan dira orain arte egin ditugunak: Bastidako Toloñora, Bastidan dagoen **Peña de las malas mujeres**-era, Oionen antolatu zen **Ela** gaixotasuna garaitzeko lasterketara, Arabako Errioxako ibilaldietara joateko moldatu gara (Binasperin azkena), eta oraindik egiteke gelditzen direnak...

Ez gaitu inork geldituko, herri honetako emakumeek bakarrik ez daudela senti dezaten irteera gehiago antolatzea pentsatzen dugu, elkarrekin geldiezinak garela eta izango garela erakusteko. **Gora emakumeak eta gora Bastidako neskek! Aurrera!!!**



biasteri.....

Biasterin bizi garen guztiok badakigu (gainontzeko herrietakoek ere) gure herrian urtean zehar festa eta ekitaldi ugari antolatzen ditugula urtarriletik abendura bitartean, urte osoan, alegia. Adin guztietako ekintza izaten dira normalean, baina beti festarekin lotuak. Zorionez, Biasterin kultura, kirol eta denbora-libre elkarte asko daude, eta beraiek izaten dira Udalaren laguntzaz ekintza gehienak antolatzen dituztenak. Oso altxor handia daukagu gure herrian elkarrekin, bai horixe! Herri-festak alboan utzita, nire ustez, “benetako” kultura faltan sumatzen dut: antzerkia, poesia, zinema, artea... horien hutsa sumatu dut beti gure herrian.

Zorionez, 2020 urtean, Udalak elizarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen orduko “Salón Parroquial” zeritzana erabili ahal izateko. Egun, Udala arduratzen da horren kudeaketaz.

“Antonio Mijangos Kultur Aretoa” dauka izena gaur egun. Hainbat hobekuntza egin ziren: aretoa irisgarria izateko obrak, margotu, eszenatokiaren teloiak aldatu, soinu ekipoa erosi, berogailua... Nire aburuz, oso txukun geratu da: biasteritarrok horrelako kultur aretoa behar genuen, alajaina. Izen berria ere oso aproposa iruditzen zait, izan ere, bertako Antonio Mijangos apaizari oso merezia zuen omenalditxoak egin zitzaion; gainera “Kultur Aretoa” abizenak ñabardura guztiak biltzen ditu. Horrela, Biasteriko herritar guztiok erabiltzeko parada dugu, “benetako” kultura herrian zabal dadin. Agerikoa izan da aretoaren erabilera aparta azken urteotan. Antzerkia, zinema (*Laburbira* barne), monologoak, magia, bertsoak eta liburu aurkezpenak izan ditugu, besteak beste; denetik eta denontzat. Ez bakarrik San Joan festetan, edota inauterietan; kulturaren adierazgarri ugari urtean zehar izan dira.

Aretoak eszenatokia, 160 butaka, proiektorea, soinu ekipoa, mikrofonoak eta berogailua ditu. Baina nola baliatu horietaz? Zer egin behar dugu erabiltzeko? Nire kultur elkarrekin edozein ekitaldi egiteko eskaera egiterik al dauka? Nola erreserbatzen da? Zein emanaldi mota daude?

Oso erraza, aizue: udaletxera hurbildu eta erreserba egin; egun horretan bertan giltzak jaso eta listo! Ekitaldiok iragartzeko kartelik bada, ekarri, eta Udalaren aplikazioan jarriko da edonork ikus dezan. **Eralbileran dago gakoa eta arrakasta. Animatu zaitetze proposamenak egitera!**





Azpiazuren marrazkia (1914)


bilbidetxoak, pasealekuak eta bidezidorrak izan dira betidanik. Garai ezberdinetan mota askotako erabilerak izan dituzte; gaur egunean, aldiz, geure aisialdirako erabiltzen ditugu, batez ere. Batzuetan jendea edota auzokideok larrutzeko toki apartak, txutxu-mutxuak elkarri errateko lekuak, kirola erraz praktikatzeko bazterrak, osasuna zaintzeko gunek... eguneroko paseotxoak...

Ohikoa izaten da Arabako Errioxako herrietan halako ibilbideak, pasealekuak edota bidezidor liluragarriak izatea. Bastidan, esaterako, “El Machimbrao”; Lapuebla de Labarcan “La Poveda”; lekoran “La Bercijana” ibilbidetxoak... batzuk aipatzearen, baina esan bezala, ugari dira herri guztietan. **Mantible** aldizkarian maiz eman digute horien berri.

Oraingoan, ordea, Biasterin aurkituko dugun batez jardungo dugu: “**El Collao**” pasealekuaz, hain zuzen.

Biasterikoek oso maite dute El Collado; izan ere, sarri erabiltzen dute bertakoek euren egunerokotasunean. Pasealeku aparta, zalantzarik gabe; ez motz ez luze; laua, atsegina, eroso, ederra. Nork bere neurria hartzen du beharraren arabera: buelta bakarra, bi, ordubeteko paseoa, buelta eta buelta...

Toki hauek guztiek iragan txundigarria dute. Historia. Batek daki zenbat pasadizo, istorio, eztabaida, gogoeta, sekretu, amodio kontu... Bertako zuhaitzek gordetako isilekoak.



ZUHAITZAK



Ez da biderik zuhaitzik gabe, itzalik gabe... Gure inguruak landaredia zein zuhaitz polit asko ditu, zorionez. Horien presentzia ezinbestekoa dugu ibilbide atseginak burutzeko. Eguzkiak gogor jotzen duenean, babesleku aparta da zuhaitza; gerizpean babesba. Lagun bikainak zaindu beharrekoak; gainera, sekulako historia dago horien atzean. Gehientsuenak mitologiarekin oso lotuak; istorio ederrak, alajaina! Halaxe dugu El Collado pasealekua: zuhaitzez beterik, urte askotakoak, loditxoak, meheagoak, exotikoak, bertakoak... Horiei esker, zalantzarik gabe, paseoa atseginagoa izaten da. Batzuk aipatzea eta horien istorio bitxiez jakitea interesgarria litzateke, ezta? Horra hor gure pasealekuan diren batzuen kontutxoak:


Altzifrea *Cupressus semprevivens*

- Beti berde, beti bizirik.
- Hilerrietako zuhaitza izaten da.
- Etxe batean altzifre bakarra egoteak bidaiariak ura edan zezakeela esan nahi zuen. Bi egonda, edana eta jana; hirurekin edana, jana eta ohea. Horregatik, altzifreari "abegi onaren" zuhaitza deitzen zaio.



Ezkia *Tilia platyphyllos*

- Ezkiari usaina dariola, San Joan.
- Matrioska panpinak egiteko erabiltzen da zura.
- Loreekin infusioak egiten dira.
- *Soila* mendian (Izkiz) 600 urteko ezkia dago.
- 900 urte eman ditzakete bizirik.
- Arabako Errioxan "Ezkide" izena zuen herria izan zen, egun desagertua. Biasteriko kale batek ere izen hori darama.



Makal zuria *Populus alba*.

- "Populus" hitzak "herria" esan nahi du; herriaren zuhaitza. "Alba" hitza, berriz, hostoaren azpialdearen zurixka koloreari dagokio.
- Amerikara joandako artzainek (Kalifornia, Nevada, Utah, Idaho), makalen azalean hainbat idazki, marka egiten zituzten (pentsamenduak, nahigabeak...): *arboglifoak*.
- Leonardo da Vinci artistaren *La Gioconda* makal baten zura gainean dago margotua.



Hagina *Taxus baccata*

- *Taxano*-ak ateratzen dira hostoetatik eta azaletik, kimioterapiarako erabiliak (*Taxol*).
- Zura oso preziatua izan da geziak eta arkuak egiteko.
- Horien itzalpean herri-batzarrak egiten dira zenbait herritan; kontzeju zuhaitza da.
- Gure mendian, Toloño mendilerroan, badira milurteko pareta (bost metro eta erdi zabal dira).
- Hiltzen hasitakoan, euren adarrak beherantz zuzentzen dira lurzoruan sartuz. Zuhaitzaren berpiztea.
- Espainian 300.000 ale inguru geratzen omen dira.



Indigaztainondo *Aesculus hippocastanum*.

- Ez du zerikusirik gaztainondoarekin, ezta horien familiarekin ere.
- Amerikatik ekarri zuten.
- Beren fruituak armairuetan sartzen dira arropa ongi kontserbatzeko.
- Fruituak poltsikoetan sartuz gero, hagineta mina arintzen da.
- Umeek eraztunak egiteko erabiltzen zituzten.



Gurbitza *Arbutus unedo*.

- Oso ohikoa eta bertakoa da Arabako Errioxan.
- *Berberana* parkearen inguruan arteen artean ikusten dira. Horri "Estellés" artadia deitzen zaio (hezetasun handia dagoen seinale).
- Fruituekin marmeladak eta likoreak egiten dira. Alkohol pitin bat duenez, ez da komenigarria umeei ematea.
- Sustraiekin larruak tintatu egiten dira gorria lortzeko.



HISTORIA PIXKA BAT

El Collado izenak muinoari egiten dio erreferentzia (geologian muinoa, mendia baino baxuagoa dena, beraz, izen naturala). Biasterik (Laguardia) itsasontzi baten itxura du: iparraldeari begira *branka* eta hegoaldean txopa edo popa. Tradizioaren arabera, Laguardia “Biasteri” izena zuen herrixka baten gainean sortu zen. **Antso II.a Gartzzeitz** (Antso Abarka) erregeak gaztelua eraikitzeke agindua eman zuen X. mendean toki horretan, brankan, hain zuzen (**Felicitas Martínez** de Salinas Ocio. *Arquitectura y urbanismo de Laguardia-Álava*). Dena den, gazteluaren lehenbiziko berriak 1164ko maiatzaren 25ean dauzkagu. **Antso VI.a Nafarroakoak** (Antso Jakituna) Laguardiari **Herri-Forua** eman zionean. Orduantxe lehenbiziko tenenteak izan zirenen izenak ageri dira: **Rodrigo Martínez** (1164), **Álvaro el Viejo** (1183) eta **Martín Iñiguez** (1191). Gaztelakoen eraso izan zenean, 1191ean, **Gonzalo de Baztan** zegoen tenente (**Iñaki Sagredo** Garde. *Castillos que defendieron el Reino. Tomo V*). **Antso VII.a Nafarroakoak** (Antso Indartsua, Jakitunaren semea) Biasteri harresitza batez inguratu zuen, horrela, gotorleku bilakaturik. Egun ez da gazteluaren arrastorik, izan ere, **Álvarez jeneral karlistak** suntsitzeko agindua eman zuen 1874an herritarrak erabat aurka agertu arren.

Gazteluaren harriekin artilleria kuartela eraiki zuten zenbait urte pasa eta gero. Kuartelak defentsarako balioa galduta, bertan behera geratu zen abandonaturik. 1927an Biasteriko eskolak inauguratu ziren kuartel zaharraren eraikin zaharra baliatuz hainbat obra eginda. Obra horien kostoa bertako semea zen **Victor Tapia** enpresariak (*Chimbo* xaboiak) hartu zuen bere gain. Nolabait herriko ongile kuttuna bihurtu zen. Nolanahi ere, truke polita egin zuen eskolaren kontura: pasealekuaren hasieran bere txaleta (gaztelua) zena dago, oso toki ederrean. Gainera, bere aisialdirako orube polita zeukan iparrari begira. Hil ondoren, bere testamentuan eliza saritu nahi izan zuen herentzian gaztelua



Gazteluaren fikziozko berregitea.
Antonio Cadarso (1992) *secretosdelaguardia*


eta zegokion lursaila emanda. Elizak hartu, eta bertan zenbait urtez bizi izan zen apaiz saldoa. Alabaina, herriko zenbait bizilagun eta apaiz batzuk ez omen zeuden oso konforme Tapiaren herentziarekin, eta txaletari zegokion lursaila herriari bueltatzeko eskatu zioten Gasteizko Gotzainari (**José María Larrauri**, 1918-2008) gutuna bidaliz. Hainbat tirabira izan ondoren, pasealekuaren zati hori betiko geratu zen herritarrentzat.

Ez dugu El Collado pasealekuaren berririk XVIII. mendera arte. Jakin badakigu orduantxe herriak zeukan

pasealeku bakarra zela. 1738ko abuztuaren 24an Udala bildu omen zen hainbat herritarren kexak aztertzeke. Izan ere, **José Ortiz de Zárate y Ramírez**, garai hartan Biasteriko bikarioa, lizentziarik gabeko obra batzuk egiten hasi zen pasealekuan bertan. Paganos herriari begira zeukan etxea handitu nahi omen zuen. Horretarako, bi horma handi eraikitzeke zimenduak egin zituen El Collado pasealekua ixteke (Felicitas Martínez). Bertakoak paseoan ikustea ez zuen gogoko, nonbait. Gauzak horrela, Udalak obrak bertan behera uzteke eskatu zion bikarioari bi egun geroago, abuztuaren 26an, hain zuzen (Felicitas).



Tapiatarren etxeaz gainera, muinoaren iparraldean, **Félix María de Samaniego** alegilariaren omenezko irudia eta kioskoa dago “*El Crucifijo*” zeritzan gunean (bertan gurutze bat zegoen, eta kioskoa jartzeko kendu zuten). Bilboko **Severino Achúcarro** arkitektoaren zuzendaritzapean egin zen proiektua. Samaniegoren brontzezko bustoa **Vicente Larrea Aldama** artista bilbotarrak egin zuen.

Basamentua egiteke Angulema herritik (Frantzia) bertako *harri zuria* ekarri zuten. Horrela, 1883ko ekainaren 24an, San Joan egunean, inauguratu zuten. Badirudi hurrengo urtea latza izan zela nekazariarentzat, izan ere, izozte latza pairatu zuten, eta ez omen zuten mahats alerik ere jaso. Samaniegoren bustoa (burua) “*Los Castellares*” izeneko gunean (muinotik behera) agertu zen. Gurutzea kentzeagatik Jaungoikoaren mendekua ote?



Tapiatarren txaleta El Collado pasealekuan

Ttiki-ttaka 2023



bilar.....

Eugenia, Serafín, Damián, Marcial, Félix...



Félix García (1931). Bilarreko azken estraperlista

Serafinek gariz betetako azken zakua mandoaren gainean ondo tinkatzen du. Eugeniak, emazteak, olio pittin bat ezkututzen du zakutoetako batean; olio gordeta zuen arasaren tranpol batean. Damianentzat da olio, patatak dituenarentzat. Eugeniak urduri, zera diotso Serafini: “Bihur hadi onik, maitea, jainkoarren!”. Serafinek lasaiago: “Argia urratu aurretik bueltan izango naun, lasai”. Elkarri muxua eman ondoren, Bernedorako bideari ekiten dio.

Estraperloa merkatu beltzean oinarritu zen Estatuak kontu hartutako produktuei, tasei eta errazionamenduari lotua. Espainia osoan hedatu zen Gerra Zibilaren ondoren, eta oso ohikoa izan zen

Arabako Errioxako herri askotan. Bilarretik, kasurako, mendilerroa zeharkatuz zamariak gariz betetako zakuak garraiatzen zituzten Bernedoko errotetan ehotzera; zakutoetan, besteak beste, ardoa eta olio eramaten zituzten, hartara, irina eta patetekin itzultzen ziren etxera. Bilarreko Bernedorako Bidea kalean haur askok entzun zituzten garai hartako estraperlisten pasadizo txundigarriak.

Serafinek ilargitan ez ibili nahiago zuen *La Cañada* portu malkartsuari ekiteko. Hots batek erne jartzen du. Beldurrari, ordea, eutsi behar zaio ezinbestez, zain daudenen belarriak eta gorrotoa esna ez daitezen.

Guardia Zibilak bidean antzeman ohi zituen estraperlistak. Batzuetan merkantzia kentzen zien, bestetan, isuna jarri, eta, kasurik okerreanean, tiroz hiltzen zituen. Zenbaitetan, ordea, diruaren truke lagundu egiten zien mandoen gainean zakuak berriz jartzen errotan zirela. Kontraesanak, miseriak... Nolanahi ere, egoera larriak bi herrien arteko elkartasuna eragin zuen. Jakin badakigu ezarritako isunak auzokideen artean ordaintzen zirela maiz, eta merkantziak garraiatzerik ez zutenei lagundu.


Serafin basoan gelditzen da isilik, Bernedoko sarreran. Bidea libre duela eta guardia zibilik ez dela adieraziko dion seinalearen zain. Errotan dagoela, garia eta olio ematen dizkio Damian lagunari. Damianek, berriz, adostutako patatak prest utzi dizkio dagoeneko. “Zaindu, gizona! Emazkiok eskumuinak Eugeniari!” Behin mandoa zamatuta, Marcial errotariak agur egiten dio Serafin lagunari bueltarako bidea hartu aurretik.

Geure aurrekoen kemena eta nekea alaitasunez beteriko giroan, elkartasunean. Zalduak lagun, oinez eginiko ibilbideak bi herriak elkartzen ditu egunaren hastapenetan. Estraperlistei egindako omenaldia eta herri-bazkaria ezinbestekoak dira ospatze honetan. Frontoia lekuko da bi herritarren arteko “primi” lehia. Batzuen eta besteen eskuak bero-bero eginda utzi ditu aste osorako, baina pozik, alajaina!. Musikak eta txosnak egun aparta borobiltzen dute.

Mandoaren apoen hotsek burrunba egiten dute *Argumento* kaleko harrizko etheen artean. Eugeniak artega Serafini egiten dio irribarre leihotik. Senarrak ere irribarre egiten dio; orain lasai daude elkarrekin, patxada ederrean.

Gora Bernedo, Gora Bilar eta larga vida al mundo rural!

Ttiki-ttaka 2023



eltziego.....

Lore eta Ortuaren Merkatuaren X. Azoka

Aurten ere, urtero bezala, apirilean **lorearen eta ortuaren merkatua** ospatu zen Eltziegon. 10. azoka honetan, saltoki ugari bueltatu ziren euren baratza eta lorategiko produktuak saltzeko; beste hainbat produktu saltzeko zituzten postuekin batera, pateak, olioak, barazkiak, artisau produktuak...

Urtero bezalaxe, kioskoa apaindu genuen, eta, aurten, gure inguruko lurraren erabilerak erakustea erabaki genuen. Honela, pinudiak, artadiak, olibadiak, ortua, zereala, mahastiak eta gure eskualdeko beste hainbat txoko irudikatu nahi izan genituen.

Egunean zehar, Eskola Dantza taldekoek eskainitako ikustaldiaz gozatu genuen. Parte hartzaile eta laguntzaileentzako herri-bazkariaren ondoren, egun zoragarri honi bukaera ezin hobea emateko, musika kontzertu batez gozatzeko aukera izan genuen herriko plaza nagusian.

Hurrengo urtean, gurekin azoka bizitzeko eta disfrutatzeko, merkatura hurbiltzera gonbidatzen zaituztegu.



eskuernaga.....

Haize Berri Freskoa!

Kaixo, Ttiki-ttaka kideok! Eskuernagatik ari natzaizue, egun hauetako ajeak gainetik ezin astinduz, herriko festak baitira, eta goizaldeko ordu txikietan etxera erretiratzeak bazterren bat ez jotzeko daukan arriskuarekin, irribarre zorionsua ahoan eta etxera bidean kaleetako hormak bere kasa mugitzen direla; etxera iritsi, papera hartu eta ea kapaz naizen, behar ez den bat esan gabe, gure bizitza baldintzatzen duen gai bati buruz nire iritzia emateko.

Aurten ere, enegarrenez esango dut, ez baitut gogoratzen noiz izan zen azkenengoz, ez da herrian jai batzorderik antolatu eta egitaraua watsapez jaso dute herritarrek, ttukun-ttukun. Nork egina?... Udaletxean agintzen duten taldekoek egina, jakina, beste inorekin hitz egin eta kontatu gabe. Nire osasun mentala zaintze aldera ez nuen irakurri ere egin, beste gauza batzuen artean watsapik ez dudalako. Badirudi horrelako jarrerak eta moldeak nahi eta nahi ez onartzen ikasi behar dugula eta pitto bat ere balio ez dugun sentsazioarekin guztiari men egin. Ba, ez!!

Oraindik bi urte ez dira epailearen aginduz kriskatu zutela gaztetxea. Bertan sortu zen mugimendu kulturalari jarraipena emateko asmoarekin herriko zenbait gaztek aurreko urtean ARBASOEN HOTSAK 1.EDIZIOA antolatu zuten herriko hilerri ateoan, eta, oraingoan, herriko festen bigarren egunean, larunbatean, musikaren inguruan egun oso bat antolatu zutela (herri bazkari eta guzti) esan zidatenean haize berri, fresko eta osasungarria sentitu nuen. Marta eta Kikoren tabernaren ondoko Gurugu izeneko tokian egin zen dena eta oso ekarpen ederra egin zuten festetara. Zumaiako MARLIK, Bilboko KINKILA, Eskuernagako GENOCIDANCERS eta eskualdeko ASTORATUAK taldeek hartu zuten parte. Eta bazkaltzen ari ginela komentatu zuten beste bi egun ere antolatuak dauzkatela, hauek IBAOLA HARRIETAN, HILERRI ATEOAN.

Lehenbizikoa ekainaren 3an, ARBASOUND ekimena, arratsaldeko 8etan hasita. Sarrera librea izango da, akanpatzeko tokia, txosna eta abarrekin. FREE STYLE saioak irekiko du gaua; RAPa HAIZEATXO + TXIMU (Urizaharra eta Eskuernaga); ZARATA SELEKTION (Gasteiz); DUBINCI SOUND (Logroño); SOINU SISTEMA "LOKATZ" taldearekin (Gasteiz); DJ gonbidatuak, musika elektronikoa.

Bigarrena uztailaren 1ean, ARBASOEN HOTSAK 2.EDIZIOA ekimena. Egun osoko egitaraua da, eta 7€ko sarrera izango du. Aurten, emakumeei ikusgarritasun handiagoa emateko helburuarekin, sei taldetatik 3tan izango dira. Egitaraua, honako hau: Goizeko 12etan elkartu eta HERRI POTEOA; 14:00etarako harrietara igo eta JONI TXINTXES + BILI LADILLAren kontzertu akustikoa; 15:00etan BAZKARIA (izena eman behar da Arbasoen Hotsakeko emailean edo Instagramean); -18:00etan BISITA GIDATUA Ibaola Harrietan bertan (egileak berak, Josebak, egingo du); 19:00etan kontzertuak: KVERNA (Logroño), TXULERIA JODER! (Bilbo), PERLATA (Arrasarte), DIRTY OLD GASTEIZ (Gasteiz), DEGENERADOS (Arabar Errioxa) eta EH, MERTXE (Arabar Errioxa).

Gonbidapena luzatu nahi dizuegu guztioi, eta aurreko urtekoa bezain ongi aterako den desioaz, ordura arte.



kripan.....

Kripango Horma-Irudiak

Azken urteetan herrietan horma-irudiak egitea indarra hartzen ari den jarduera da. Eta nola ez, Kripandarrok ere ez gara atzean gelditzen diren horietakoak.

2022ko urria eta azaro artean egin ziren horma-irudiak, **Gorka Tuesta** diseinatzaileak egina. Helburua alde batetik espazio publikoak erakargarriagoak egitean zen, bai bertako biztanleentzat, bai turistentzat. Beste alde batetik, herriko ondare kulturala, arkitektonikoa eta naturala hedatzea du helburu.

Kontuan izanik haurrentzako parke bat dela ere, natura ondare babestuari garrantzi berezia eskaini zaio. Haurrek duten animaliekiko erakarpena kontuan hartu zen. Beste helburu bat ere ingurumenarekiko sentsibilizazioa izan zen, horretarako hondakinak nola bereizi azaltzen dituzten irudi batzuk diseinatu dira eta etorkizunean zaborrontzi batzuk jarriko dira.

Bertan esan bezala, herriarentzat garrantzitsuak diren gaiak irudikatu dira, hala nola: Montorta, eliza, animalia desberdinak, trikuharria...

Animatu zaitetzte herria bisitatzera! Irudiok taberna ondoko parkean aurkituko dituzue.

Zuen zain gaude!



ORGANIKOA MATERIA ORGÁNICA



ONTZI ARINAK ENVASES LIGEROS



ERREFUSA RESTO



PAPERA eta KARTOIA PAPEL y CARTÓN



iekora.....

Gure Pablo Gogoan



Apirilaren 10ean ez esnatzea nahiko genukeen amesgaiztoa ez bizitzeko. Apirilaren 10ean istripu batek eraman zuen Pablo gure ondotik.

Orotan bihotz-bera den adiskide horietako bat bazen Pablo. Gutxi dira mota horretako pertsonak eta gutxi batzuek baino ez dute uzten Pablok utzitako arrasto sakona. Bere izaera maitagarri, apal eta hurbila antzematen zen berarekin egon bezain pronto, eta bere begirada garbian aurreikusten zen benetako pertsona baten aurrean geundela, fidatzekoa. Pabloren heriotza kolpe latza izan da ekoratarrontzat, baita arabar errioxarrontzat ere, eta geure garraxi bortitzena atera du... Haren heriotzak elkartasun uholde ikaragarria sortu du. Ikustea besterik ez dago hiletako arratsaldean herriko plazan elkartutako ehundaka lagun. Lagun horiek guztiek familiarekiko maitasuna, begirunea eta elkartasuna adierazi nahi zuten, ez besterik.

Pablo oroitzapen den gerora joan zaigu, bidean oroitzapen eder asko utzita. Ziurrenik bera ezagutzen genuenok negarrarekin batera barre pixka bat ere egin dugu bere pasadizoak gogoratzean. Une polit askoak bizitzeko aukera izan dugu bere ondoan, eta bera zen bezalakoxea saiatu behar dugu gogoratzen, irribarre jator batekin eta bazileo sanoarekin. Asko izan dira Pablori egindako omenaldiak, bai lekoran zein lekoratik kanpo eta ziur nago bera oroitzean irribarra negarrari gailendu zaiola.

Ez zekiat non hagoen, Pablo, ez zekiat zer mahastitan. Argi dudana zera da mahasti hori moskatelez eta malbasiaz osaturik izango dela, hire goxotasun maitagarri horretaz elikatuko delako. Eta jakin bazekiat mahasti hori euskararen ur gardenarekin ureztatuko dela, Pablo, zeren herriko euskaldunok pertsona bikaina galtzeaz gain, solaskide aparta galdu baitiagu. Egon lasai, Pablo, ahal den neurrian zainduko ditiagu gurasoak eta arreba, nahiz eta hire hutsunea betetzea ezinezkoa izango den. Maite haugu, bihotza.

Adiorik ez, Pablo, adiorik ez.

Lantziego.....

Kulturartekotasun Jaia

Otsailaren 26an, hiru urteren ostean, Lantziegon berriro ere **Kulturartekotasun jaia** ospatzeko aukera izan genuen. Herri eta herrialde desberdinetako pertsonak bildu ginen bertan. Jai honen helburuetako bat pertsonen arteko desberdintasunak ikasteko erabiltzea da, bai eta denon arteko elkarrizketa zein adostasuna bilatu eta sustatzea ere. Horrela, denon integrazioa bilatuz eta bizikidetzatza aberasgarri bat sortuz, Kulturartekotasuna dibertsitatea, errespetua eta aberastasuna baita.

Egunean zehar, paella, kuskus eta te mota desberdinak prestatu eta dastatu genituen kultura desberdinetako jakiez gozatzeko asmoz. Haurrentzako hainbat tailer izan ziren: *henna (jena, alheña)*, puzleak... Ekintza horiek guztiak herriko frontoian girotu ziren haurrek egindako euskal dantzekin, dantza tribialekin zein Lantziegoko txalapartariekin eta musika bandarekin. Hurrengo urteetan ere zuen zain izango gara. Izugarri gozatu genuen!




Lapuebla de labarca.....

Amildegirik Amildegi

Lapuebla beti izan da herri malkartsua, aldapatsua, lauak diren leku gutxiko herria. Ikusi besterik ez dago nola deitzen den enparantza: “Plano”. Eta futbol zelaia zena aurkitzeko ikastolatik haratago joan behar gara.

Aurreko batean Euskal Herriko Itzulia herritik pasatu zenean, Ebroko zubitik Eltziegoko bidean dagoen aldaparen bukaera, **3. mailako portua** zela izendatu zuten, beraz, atera kontuak. Hona hemen Lapueblan dauden **hiru amildegi**:



Leza.....

Lezako Nondik Norakoak

LEZA biztanleok egiten dugu; guztiok gara garrantzitsuak: herrian bizi izan direnak (gogoan zaituztegu), egun herrian bizi garenok, asteburuetan edo uda garaian etortzen direnak eta etorkinak, laguntzera etorri zaizkigunak.

Lezako berezitasunei dagokienez, ondokoak aipatu behar: “*La Lombilla*, *Angelito* (antzinako aguazila) eta *El Encinedo*”.

La Lombilla bodegaz beterik dagoen lekua da, non ardoa ekoizten zen. Gure arbasoak imajina ditzakegu elkarri laguntzen ardoa egiteko garaian, baina ziur astia ateratzen zutela dastatzeko.

El Encinedo (artadia), gure birikia. Lezakoa izan zen, baina Franco garaian hemengo Udalak hiru eraikitzaile saldu zien. Geroztik, etxebizitzak eraiki nahi izan zituzten, baina, zorionez, ezin izan zuten egin, inguru babestua baita.

Azkenik, **Angelito aguazila**. Gogoratzen dugu bizikleta eta belarri-tutua eskuan zuela udal-bandoa ematen. Garai gomutagarrienak dira!

Guztiok osatzen dugu Leza deritzana.



mendabia.....

Mendabiako Kultur Asteak 25 urte!

Azkar igarotzen da denbora. 25 urte pasa dira IKAREN eskutik euskara kalera ateratzeko asmoz **Kultur Asteak** antolatzen hasi ginenetik. Kontaezinak dira ibilbide luze honetan egin ditugun ekintzak eta aurten ere jarraipena eman diogu aspaldi hasitako eta etorkizun oparoa duen bideari. Hemen duzue egindakoaren laburpena: Euskarazko **laburmetraien emanaldiarekin** eman genion hasiera aurtengo Kultur Asteari. Handik gutxira, **Izarkom** eta **Goier** Taldeekin kontsumo kooperatiboaren eredia eta oinarrizko zerbitzuak ahalduz mintzatu ginen, Internet eta energia hurrenez hurren. Potenteena iristear zegoen, eta ostiralean **Morauk eta Beñardok**, ardoz blai, kontzertu polita eskaini ziguten Mendaberriaren lokal berrian.

Egun indartsuena larunbata izan zen. Eguerdian **Hutsun** Txalaparta taldeak ikuskizun ederra eskaini zigun, eta bertaratu zen jende guztia liluratuta geratu zen. Poteoa egiteko aukera izan genuen bazkari herrikoira giro ezin hobean joan baino lehen. Amaiera emateko, **Larragako joaldunak** ongi astindu zituzten zintzarriak herriko kaleetan zehar ilusioa eta ikusmina piztuz inguratu ziren guztiengan.

Laburbilduz, esan dezakegu aurtengo Kultur Astea arrakastatsua izan dela, eta horrek aurrera jarraitzeko hauspo itzela ematen digu. Gora Euskara! Gora IKA! Eta aurrera Mendaberria!

XXV MENDABIAKO KULTUR, ASTEA

MAIATZAK 9 MAYO
20:00 Lokalean
Laburmetraiak

MAIATZAK 11 MAYO
20:00 Lokalean
Hitzaldia - Charla (castellano)


MAIATZAK 12 MAYO
21:00 Lokalean
KONTZERTUA
Morau eta Beñardo

MAIATZAK 13 MAYO
en La Carrera/ Carrean
19:00
Larragako joaldunak
15:00
Bazkaria/comida



Kontzertua
Morau eta Beñardo

Maiatzaren 12an
21:00etan MENDABERRIA
euskara taldearen lokalean
MENDABIA
Ardoari eskainitako musika emanaldia



navaridas.....

Abegi Onekoak

Laguardia, Eltziego eta Leza triangeluaren erdian kokatzen den herri txiki bat da Navaridas. Zuhaitzen berdez inguraturik herriko elizarik handiena zerurantz altxatzen da hura ukitu nahiko balu bezala herriaren zaindari bihurtzen delarik, herriko txoko ezkutuen zein bertan aurki daitezkeen bizilagunen zaindari, hain zuzen. Herrian bertan bada *Altxor kalea*, zeinak bere izena antzinatik gordetako upelategi zaharretatik hartzen duen, baina herri honek gordetzen duen benetako altxorra herria bera osatzen duen etxe barnetan aurki daiteke.

Oraindik ere, etxeetara sar gaitezke aldaba jo gabe, eta etxeko bihotzeraino sartu. Bertan, bizilagunak sukaldeko txapa bero baten epeltasunean hartuko zaituzte, zein izango den gaur bisitan datorrena galderari erantzuteko irrikan. Bere etxean hartzen zaituztenaren poza ikus daiteke aurpegi ezberdinetan, zahar zein gazteengan, eta solasaldi emankor baten truke jakiren bat eskainia izango da beti: fruitu lehorrak, kafea txokolatzeko palmeratxo batekin, izebak baratzatik hartutako sagar berde eta inoiz ez perfektua, lehengusuak ehizatutako basurdearen solomoa edo txorizoa... **AUSKALO!!**

Navaridas herria txikia bada ere, Navaridaseko bizilagunen handitasuna hiri edo metropoli izugarrienekin konpara daiteke. Herria mapan jartzeko edota izena zabaltzeko jartzen duten gogoa eta lana ikusi besterik ez da egin behar. Lorez beteriko plaza desberdinak edota landarez itsuturiko balkoiak ikusten galduz gero, edozeinek beso zabalik hartuko zaituzte herria gogo biziz erakusteko edo txoko umil batean hamaiketako gozo bat konpartitzeko ardo botila baten konpainiaz.



paganos.....

Herri Txiki, Taberna Handi

Inguru hauetan ez da zaila imajinatzea bizitza nolakoa den herri txiki batean, baina, jakina, ez da gauza bera Oion, Bastida batean bizitzea edo Labraza edota Paganos bezalako herri ttipi batean. Tamaina honetako herrietan (jar ditzagun ehundik beherako biztanle kopurua duten herriak), normalean, ez dago inolako zerbitzurik, hau da, ez dago medikurik, ez okindegirik, ezta arraindegirik ere; eskerrak taberna daukagula, horixe izaten baita elkarbizitzarako geratzen zaigun leku bakarra. Egun epeletan erraza da bizilagun bat edo bestea kalean topatzea, baita haurrak parkean jolasten entzutea ere, baina negu gorrian ez dago inor ikusterik tabernan ez bada.

Orain dela bost urte Paganosen taberna itxi zuten. Hasieran pentsatu genuen norbaitek hartuko zuela, baina egunak pasa eta hautagairik ez. Herria bizitzarik gabe geratu zen; tabernarekin zer egin izaten genuen hizpide guztiok, baina hasieran bakarrik, ze pixkanaka mamu bihurtzen hasi ginen.

Argi zegoen irtenbidea aurkitu behar zela eta herria eta elkarbizitza berpiztu. Beraz, hainbat bilera egin ondoren, taberna ireki eta denon artean lantzea erabaki genuen. Zenbait paper bete ondoren, elkarte bat sortu genuen taberna denon artean kudeatu ahal izateko, eta egun batetik bestera bizilagun guztiok kamarero bihurtu ginen. Tirabirak egon dira, jakina, herri txiki infernu handi esapide zahar hori egia hutsa baita, baina txikikeriak dira egoera berriak herrira ekarri duen onurarekin alderatuta.

Denok daukagu giltza, beraz taberna beti egoten da zabalik (abantaila nagusietako bat, nire ustez). Nork bere edariak zerbitzatu behar ditu, ordaindu, edalontziak garbitu eta hozkailuak bete, baina prezioak herrikoiak dira, behintzat. Bazkide batzuek batzarra osatzen dute erosketak egiteko, garbiketa txandak antolatzeke, kontuak egiteko eta abarretarako.

2020ko martxoaren 7an zabaltze ofiziala egin genuen, eta handik aste betera giltzapeturik izan ginen pandemia zela eta, beraz, hasiera zaila izan zen, baina urruti geratu dira egun horiek. Gaur egun, herriaren topagunea izateaz gain, hainbat ekitaldiren eszenatoki ere izan da lortutako diruari esker.



Vianako **Erentzun Ikastolak** Aniztasuna Aberastasuna VI. Eskola Lehiaketan bi sari jaso ditu aurten. Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, ekimen hau antolatzen du 2018 urtetik. Honen bidez, balioan jarri nahi dira bizikidetzaren aberasten duten gizarte anitz bateko hiritar izateak eskaintzen dituen aukerak, eta ikasleengan ezberdintasunaren aurrean begirada inklusibo eta baikorra sustatu nahi da.

Aurtengo edizioan 1.415 ikaslek hartu dute parte, eta 70 lan aurkeztu dira. Horietatik Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. mailako ikasgelenak izan dira aukeratuak dagokien kategorian. Sari banaketa Iruñeako Baluartean egin zen, eta saria jasotzeaz gain, Erentzungoak oholtzara igo, eta ukeleleaz lagunduta abesti bat eskaini zieten bertaratu ziren guztiei.

“Lehen Hezkuntzako gela guztiok hartzen dugu parte. Izan ere, gurea Ikastola txikia izan arren, anitza da, noski. Horregatik, aniztasunaren trataera eta esku-hartzeari zein bizikidetzaren errazten duten jarrera eta balioak sustatzeari garrantzia eman eta sortutako beharrei modu eraginkorrean erantzuten saiatu gara beti. Gure helburuetako bat ikasleen heziketa integrala bultzatzea izanik, elkarlana eta berdinen arteko ikaskuntza eman dadin, giro aproposa sortu behar dugu gure ikasleen artean; elkarren arteko errespetua, onarpena eta bizikidetzaren ardatz izan behar dira.

Lanketa horien guztien fruituak azken urteotan jarraian jasotzen ari gara, hiru urtez jarraian saridunak izan baikara. *“Pozgarria benetan, baina are pozgarriagoa iruditzen zaigu haur horiek ikasketak hauek guztiak barneratu ondoren, beren egunerokotasunean, gure gizarte hau hobegotzeko lanketa horretan gehituko duten apurtxoak”*, adierazi du **Garbiñe Zulaika** ikastolako zuzendariak. **Zorionak, Erentzun Ikastola!**

Bestetik, Aurten berriro disfrutatu dugu Erentzun Fundazioak antolatzen duen **Artisautza Azokaz**. Vianako hirigune historikoa joaldun, gaitero eta txistularien musikarekin bete zen. 70 artisautza postu baino gehiagok parte hartu zuten urtero *Erramu Igandean* ospatzen den “euskal jai” honetan.

34. edizio honetan **Irene López Goñik**, Nafarroako Ikastolen Federazioko pedagogia arduradunak, jaso zuen *“Erentzungo Eskortak”* saria. Horren bidez, ikastolak hezkuntza-sistema berritzailea izan dezan, emandako laguntza eta bultzada eskertu nahi izan zaio.

Antolatzaileek Artisautza Azokak urtez urte duen arrakasta positiboki baloratu dute. Hitzordu hau Arabako Errioxako eta Lizarraldeko euskaltzaleon topagune bihurtzen ari da, eta aurrerantzean ere halaxe izaten jarraitzeko asmoa du.



VII. Inkesta Soziolinguistikoak dio EAEko 16 urtetik gorako gazteen 74,5 euskalduna dela, duela 30 urte baino 49,5 puntu gehiago, baina errealitateak...


Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak EAEko VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak aurkeztu ditu:

- Euskaldunen kopurua 12 puntu hazi da azken 30 urteetan. Hiru lurraldeetan egin du gora ezagutzak
- 16 urtetik gorako herritarren % 67 euskararen erabilera sustatzearen alde daude
- Zupiria sailburuak adierazi duenez, inkestaren datuek berresten digute gizarteak euskararen alde egindako apustua sendoa izan dela eta sendoa izaten jarraitzen duela gaur egun ere”

2021ean egindako Inkesta Soziolinguistikoa herritarren datu aitortuetan oinarritzen da, eta lehen Inkesta Soziolinguistikoa 1991koa denez, oraingo inkestak balio izan du azken hiru hamarkadatan euskarak EAEn izan duen ibilbidea zein den argitzeko. EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleria izaten da inkestatua. Bost urtetik behin egiten da inkesta soziolinguistikoa eta lau ikerketa-eremu jasotzen ditu:


1. Herritarren hizkuntza-gaitasuna
2. Hizkuntzaren transmisioa
3. Euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, eremu formaletan...)
4. Euskararen sustapenari buruzko jarrera

EAEn gaur egun duela 30 urte baino, 1991. urtean baino, 261.000 euskaldun gehiago daude, hau da, euskaldunen kopuruak 12 puntuko hazkundea izan du azken 30 urte hauetan (24,1etik 36,2rako). Gaur egun 16 urtetik gorako biztanleen % 36,2 dira euskaldunak, % 18,6 euskaldun hartzaileak eta % 45,3 erdaldunak.



Tfiki-ffaka 2023

VII. Inkesta Soziolinguistikoak erakusten du euskal hiztunaren profila gaztetu egin dela azken hogeita hamar urtean. Euskaldunen ehunekorik handiena 16-24 urte bitarteko gazteen artean dago. Izan ere, 16 eta 24 urte bitartekoen %74,5 dira euskaldunak, 1991n, berriz, %25 ziren. Zupiria sailburuak adierazi du: “Edozein hizkuntza gutxituren biziberritzean egon litekeen daturik onena da gazte-belaunaldiak euskara ezagutzea. Hizkuntza-ordezkapena iraultzen ari den adierazle nagusienetakoa da”. Orain dela 30 urte adin-talderik euskaldunena zena, 65 urtetik gorakoena, gaur egun euskararen ezagutza apalena duena da (% 22,1 euskaldun).



Igoera orokorra

VII. Inkesta Soziolinguistikoak adierazten duenez, euskaldunen igoera hiru lurraldeetan gertatu da. Gipuzkoan dago euskaldun gehien: % 51,8 (hamarkada batean, 2 puntuko igoerarekin); ondoren Bizkaia dago (% 30,6; 5 puntuko igoerarekin) eta gero Araba (% 22,4; 6 puntuko igoerarekin).

Euskararen erabilera

VII. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen adierazten dutenez, euskararen erabilera ere gora egin du. Biztanleen % 21,9k hitz egiten dute euskaraz erdaraz beste edo gehiago. Guztira, 412.821 biztanle 2021ean eta 271.121 orain dela hogeita hamar urte (6,4 puntuko igoera azken 30 urtean).

Adin tarteari dagokionez, ezagutza datuekin adierazi bezala, euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena gazteena da (% 33,5) eta txikiena 65 urtetik gorakoena (% 16,7).

Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreen artean nagusienak izan ohi dira hizkuntza erraztasuna eta harreman sarea. Baldintza horiek batzen direnean izan ohi da euskara erabiltzeko aukera gehien. Hala, erabilera esparruak ere aztertzen dira inkesta soziolinguistikoan eta ikusi da testuinguru formal zein informaletan egin dela gora.

Euskararen transmisioa


Familia bidezko euskararen transmisioari dagokionez, gora egin du bai bikote euskaldunetan baita bikote mistoetan ere. 3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntzaren portaera nolakoa den jakiteko, inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei. Transmisio hori aztertzeko, gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza izan dira kontuan.

Tfiki-ffaka 2023

Guraso biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, % 98k euskara soilik transmititu diete seme-alabei etxean, eta % 2k euskara eta erdara. Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna eta bere lehen hizkuntza euskara denean, % 84k euskara eta erdara transmititu dituzte eta % 16k erdara.

Euskararen aldekotasun handia

EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 67 euskararen erabilera sustatzearen alde daude, % 26,3 ez alde ez aurka eta % 6,8 aurka. Beraz, euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 30 urteotan. 1991ko eta 2021eko datuak alderatuz, euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 12 puntuko hazkundea izan du (2021ean % 67 eta 1991an % 55).



Horraio inkestak dioena, baina...

Sare sozialetan paseotxo bat eginda, ikus daiteke jende euskaltzale askok ez duela hala bizi egoera bere inguruan. Badira datu horiek oso hanpatuta daudela diotenak; goiburu gisa, ponposo eta arranditsu geratzen dela inkesta, baina ez dela erreal. Badira diotenak jende askok apenas dakien euskaraz erdi zutik mantentzeko lain eta inkestan euskalduntzat duela bere burua... Eta antzeko asko eta asko. Hala ere, honako iruzkin honek eman digu zer pentsatua: *“Datuok egia balira, gainera, kontraesan flagrantea erakutsiko lukete. Flagrante eta eskerga; alegia, euskaldunok, euskara maitatu arren, haren sustapen noranahikoarekin bat etorriagatik eta gaztetxoek nahitaez ezagutu behar dutela uste sendoa badugu ere, ez dugu erabili ohi. Edo erabiltzen badugu, isilik eta mutu erabili ohi dugu, kalez kaleko arakatze soziolinguistikoetan ez baikara agertzen, nonbait. Akaso, erdera ederrean bizi den euskararen herria gara”*.

Bai, asko entzuten den kontua da ezagutzan gora egin dela baina erabileran ez, gazteek badakitela baina ez dutela erabiltzen. Egungo ezagutza-datuak eta azkena eginiko kale erabilerakoak ikusita erraza da irakurketa hori egitea, baina badira kontuan hartu behar diren beste zenbait puntu halako usteak lau haizetara zabaldu baino lehen.

Iñaki lurrebaso soziologoak eginiko tesiak bestelako irakurketa bat jarri digu begien aurrean. Haren ustez, ezagutza indargunea eta erabilera ahulgunea dela adieraztea ez da zuzena. Bai, ezagutza erabilera baino handiagoa da, baina hori hizkuntza gutxitu guztietan gertatzen da. Zoaz Kataluniara, eta ezagutza % 80 inguruan dago, erabilera % 40n...

Soziologoaren ustetan ezagutzan dago gakoa: euskaraz hobeto moldatzen diren 195.000 hitzun

Tfiki-ffaka 2023

dauzkagu (%7), bi hizkuntzetan antzera moldatzen diren 222.000 (%8) eta beste guztiak, 2.230.000, erdaraz hobeto moldatzen dira (%85), nahiz eta horietako batzuek euskara ere jakin. Gainera, euskaraz errazago moldatzen diren ia guztiak beste hizkuntza ere badakite, baina erdaraz errazago egiten duten hiztun gehienek ez dakite nahikoa euskaraz elkarrizketa asko izateko. Desoreka ikaragarria da. Txillardegik zioen bezala, hiztun elebakarra hiztun elebidun batekin elkartzen denean, nahitaez, elebakarraren hizkuntza erabiliko da. Eta harreman sareen osuera aztertuta, lurrebasok kalkulatu du zein aukera erreal dagoen gaur egungo aurrez aurreko harremanetan euskara erabiltzeko. Ondorioak argiak dira: gaur egun elkarrizketen %82 inguru derrigor erdaraz dira Euskal Herrian –herritar gehienek erdaraz soilik dakitelako, beraz, beren artean gaztelaniaz eta frantsesez egiten dute eta euskaldun elebidunak haiekin gaudenean, derrigor erdaraz egin behar dugu-. Gero, elkarrizketa kopuru oso txiki bat, %1, derrigor euskaraz da –datu hau soziologoaren estimazioa da-, eta elkarrizketen %17n aukera dauzkagu bi hizkuntzak. Erabilera datua, beraz, ez baditugu erdaldunak euskaraz hitz egiten jartzen, ezin da %18 baino gehiagokoa izan. Egungo gaitasunaren baldintzetan, euskararen erabilera %1 eta %18aren tartean egongo da nahitaez. Eta ikusten dugu euskararen erabilera %15 inguru dagoela (VII. Inkesta Soziolinguistikoa dioenez, % 21,9), hau da, askoz gertuago maximo posibletik minimo posibletik baino. Bigarren simulazio batean, kalkulatu du zenbatekoa litzatekeen euskararen erabilera egungo harreman sareak aintzat hartuta, baldin eta elebidunak euren artean elkartzen direnean, hizkuntza bat ala bestea erabiltzea posible den kasuetan alegia, elebidun bakoitzak berari erosoan zaion hizkuntzan hitz egingo balu. Euskaraz hobeto egiten duenak beti egingo balu euskaraz eta erdaraz hobeto egiten duenak beti erdaraz. Kalkuluak horrela eginda, batez besteko euskararen erabilera %8n legoke, baina erabilera %15ean dago. Euskara, asko erabiltzen da, hortaz, dagoen gaitasunaren zorurako. Mikroskopikoago begiratuta ere, datuak argiak dira. Euskaraz errazago egiten duten euskaldunak, oro har, euskaraz bizi dira. Erdaraz errazago egiten duten elebidunak nagusiki erdaraz bizi dira, baina euskarari toki ohargarri bat ematen diote horretarako aukera dutenetan. Bestela esanda, euskaraz hobeto mintzatzen diren euskaldunek egunerokoa erdarari ematen dioten tokia askoz txikiagoa da erdaraz hobeto egiten duten elebidunek euskarari ematen diotena baino. Ikuspegi ezberdinetatik begiratuta ere ondorio berera iristen gara: dagoen hizkuntza-gaitasunaren zorurako asko erabiltzen da gaur egun euskara.

Orain arteko ikuspegi klasikoarekin, gaitasuna erabilera baino gorago zegoenez, ondorioztatzen zen ez zegoela benetako atxikimendu praktikorik. Hori galtzen ari den hizkuntza baten hurrenkera prototipikoa da. Pentsatzen jarrita, disposizio horrek heriotzara eramango gintuzke. Lurrebasok aurkezturiko ezagutza eta erabilera datuekin, berriz, ondoriozta dezakegu hiztunek atxikimendu handia dutela euskararekiko, euskararen aldeko jarrerak indartsu daudelako eta jarrera horiek hiztunen praktika linguistikoetan gauzatzen direlako. Jarreraren munduan ere bada egitekoa franko. Baina hala ere, gaur egun, horixe da gure indargune nagusia. Horri esker dago euskara dagoen mailan eta ez dezente beherago.

Hortaz, ezagutzaren datuak, inondik ere, betaurreko aproposalarekin begiratu behar dira. Arazoa ez dago erabileran soilik, eta herritarrak egiten ari diren ahalegina txalotzekoa da. Iñaki Villoslada, HABEko didaktikari buruak duela gutxi esan du, euskara-maila bat egiaztatzeke helburuz, 1. Azterketa-aldira aurkeztuko diren herritarren kopurua 15.200 ingurukoa dela.

Asko dago egiteko, baina ez da makala orain artekoa eta egiten darraigun ahalegina!



Euskararen Unibertsalizazioa Helburu, Helduen Euskalduntzea Bide

Euskarak aurrera egin du, nabarmen gainera, baina asko dira euskararen ahulezia eta egoeraren larritasunaz kontziente hizkuntza-politikan aldaketak aldarrikatzen dituztenak: “Ez badugu euskara erdigunera ekartzen gure lehentasunetan, gure politikan eta gure jardunean, bai pertsonalki, sozialki eta politikoki, ez dauka etorkizun handirik euskal komunitateak”.

Hainbatek uste izan dute belaunaldi berriak euskaraz eskolatzeak berez euskaldunduko zuela herria. Tamalez, denborak erakutsi digu hori ez dela nahikoa, alegia, hezkuntzaren iturriak ezinbesteko emari handia dakarrela herria euskalduntzeko, baina euskara nagusi ez den herri eta hirietan euskarazko irakaskuntza arautuaren mugak ere agerikoak dira, eragin soziolinguistikoari erreparatuta: euskararen erabilera eskasa, euskaraz eroso aritzeko behar besteko mailarik eza... Horrek ez du esan nahi inola ere ikasle horiek euskaraz eskolatzeari lehentasuna kendu behar zaionik, eta ezta euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osora eta alor akademiko orotara zabaldu behar ez denik ere, noski.

Euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egingo badugu, **Euskaingintzaren** Kontseiluak (gaur egun euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten eragileen bilgune nagusia) eginiko azterketek argi erakutsi dute beharrezkoa dela herritar guztiek euskaraz jakitea eta hizkuntza erabili ahal izateko espazioak izatea. Eta edonork, edonon, euskara erabiltzeko eragozpenik ez izateko, ezinbestekoa da elkarrizketako partaide guztiek euskaraz aritzeko gaitasun nahikoa izatea. Norabide horretan, ezagutzaren unibertsalizazioa lortu artean, lehen urrats gisa, ulermena unibertsalizatu behar da, euskaraz aritu nahi duen orok edozein egoeratan eta edozein solaskiderekin hizkuntza-hautua gauzatu ahal izateko.

Hortaz, ezagutza unibertsalizatzeko iturri eta baldintzetan jarri behar du arreta hizkuntza-politika egokiak: hezkuntza-sisteman, hizkuntza-sozializazioan eta helduen euskalduntzean. Kontua da hezkuntzaren eta sozializazioaren aldean –horiek inola ere gutxietsi gabe– indar gutxi egiten dela helduen euskalduntzean eta, horrela, abagune garrantzitsu bat galtzen dela; izan ere, helduen euskalduntze eta alfabetatze masiboak ekarriko du herritar guztiek euskaraz jakitea, euskararen erabilera nabarmen areagotzea, euskaltzaletasuna eta euskal kulturaren ezagutza hedatzea eta handitzea, euskal kultur produktuen kontsumoa haztea, euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osoan nagusitzea, euskararen aurkako jarrerak neutralizatzea eta hizkuntza politika egokiak egitea erraztea.

Eta, hori guztia lortzeko, euskara ikasteko eta alfabetatzeko bidea samurtu egin behar zaio herritarri, ikasi beharra sortu behar zaio, eta bitarteko egokiak eskura jarri, hau da, dohainik ikasteko modua eman behar zaio, baina euskaraz jakitea gero eta beharrezkoagoa izango dela erakutsiko dion hizkuntza politika ere ezinbestekoa da.

Horrenbestez, **Kontseiluak** eginiko azterketetatik ondoriozta daiteke helduen euskalduntze alfabetatzeak izan behar duela datozen hamarkadetan herria euskalduntzeko prozesuaren ardatza, baina ez orain arteko berez sortzen den eskariari erantzute hutsa. Bide horretan, Euskal Herri osoan bizitzaren alor guztietan euskara nagusi izatea badugu helburu, Kontseiluak bere **Batuz Aldatu** txostenean adierazi bezala, bi motibazio-mota landu behar dira, herritarrek euskara ikasteko eta erabiltzeko erabakia edo hautua egin dezaten: motibazio pragmatikoa (instrumentala) eta motibazio afektiboa.

Tfiki-ffaka 2023

Kontseiluak neurri zerrenda luzea eta zehatza osatu du bi motibazioak bultzatze aldera. Hona hemen herritarrek euskara ikasteko erabakia hartzea eragin dezaketen hizkuntza-politikako zenbait neurri (Kontseiluaren proposamen zerrenda luzeagoa da):

Administrazioa.

- Langile berriak eta barne formazioa: kontratatutako langile berri guztiek euskara gaitasun egokia izatea bermatu beharko da. Horretarako, lan deialdietan euskara balioztatzen merituaren sistemari epemuga jarri beharko zaio, eta, epemuga horretara iritsitakoan, merituaren sistema gainditu, eta lanpostu guztietan dagozkion funtzioak euskaraz egiteko gaitasun egokia izatea eskatuko da.
- Kanpo entitateak: administrazioa zerbitzu kontratatzaile nagusienetakoa denez, administrazioen zerbitzuak kudeatzen dituzten entitateek (esleipenak eta azpikontratazioak) administrazioari berari ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea bermatuko da. Neurri hori administrazioko eremu eta atal guztietan aplikatuko da.

Hezkuntza ez-formala

- Kirol eta aisialdi eskaintzari dagokionez, jabetza publikoko, administrazioak kontratatutako edo diruz lagundutako eskaintza euskarazkoa izango da. Are gehiago, irizpide hori jasoko da zerbitzu horien esleipen-baldintzetan.

Eremu sozioekonomikoa

- Langile guztiei lanorduetan euskara ikasteko eskubidea aitortu eta bermatzea bultzatuko da.
- Ahozko euskarazko harremanak bermatzeko, langileak euskalduntzeko berariazko trebakuntza-planak eskainiko dira.
- Epealdi zehatzean enpresa guztietara zabalduko da euren produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko betebeharra enpresei bideratutako ezein motatako dirulaguntza deialdietan, eta bestelako laguntza ekonomikoetan puntuazio-irizpide gisa, euskara erabiliko da, eta kasu batzuetan, euskara-plana izatea edota beharrezko ziurtagiriak izatea baldintza gisa jarri.
- Euskaraz bizitzeko eskubidea ez da soilik zerbitzu hartzaileen eskubidea. Langileek ere eskubide horren jabe dira eta, beraz, enpresek beren euskara planetan barne bitziza euskaraz izateko aukerak ahalbidetuko dituzten neurriak diseinatuko dituzte.

Ingurune digitala

- Euskarri digitalak dituzten enpresetan hizkuntza-irizpideak ezarriko dira.

Horiek guztiak bideratuko balira, beste oilar batek joko liguke euskal komunitateari.



Kontuz prentsan eta Interneten esandakoarekin!



Eduardo Aznar Martínez

Ziur-ziur nago badakizuela istorio osoa: Irulegi deritzon herri txikiko aztarnategi batean 2021 urteko ekainean pieza bitxi bat aurkitu izan zen. Gainazala garbiturikoan, arkeologoek zorientasunerako idazkun labur bat agertu: signario iberikoaz erredaktatua zegoen eta Velaza eta Gorrochategui ikerlarien eskuetara heldurikoan, hauek berek ondorioztatu omen zuten euskararen lehen testua zela.

Hemendik aurrera elur-pilota izugarria (baita elur-jausia ere) osatu egin da, komunikabideetan nahas-mahas biltzen direlarik datu onak eta txarrak, esku famatuaren inguruko *merchandising* deigarria hedatuz, euskararen sinbolo *megakosmiko*a bihurtuz. Eta dinamika horretan murgildu egin gara, ideia eztabaidagarri batzuk ontzat emanez.

Artikulu honetan zehar ñabardura batzuk erantsi nahi genituzke, zeren uste baitugu erabat zuzenak ez diren gauza gehiegi barreiatu egin direla eta egokia da halako kontuak aztertu ditzagun begirada kritikoarekin. Hona hemen, bada, mito eta ideia oker hauek, banan-banan.

Irulegiko eskua lehen euskal testua da. Agidanez, hau ez litzateke erabat egiazkoa. 1990aren udazkenean, baskoien *Andelon* (Mendigorria) hiriko aztarnategian mosaiko handi bat ediren zen, signario iberikoez idatzia, Irulegiko eskua baino zahartxeagoa (K.a. II-I mendeen artekoa). Hasieratik zenbait ikerlarik (haien artean Velaza irakasleak) hauteman zuten testu honetako hitzek euskararekiko antzekotasuna zutela. Erdiko partean *ekien* sekuentzia irakurri ahal zen eta batzuek uste izan zuten *egien* bezala ahoskatzen zela, zeinek euskararen aditz jokatu bat baitirudi, hau da, (z)*egien* 'berak egin zuen' forma arkaikoa (*egin* aditzarekin osatua). Baldin teoria egiazkoa balitz, honako testu honek euskara arkaikoz idatzirik egoteko probabilitate anitz litzuzke.

Hala ere, azken hiru hamarkadetan mosaikoak ez du altxatu Irulegikoaren neurriko iskanbila mediatiko bera, zeren establishment unibertsitarioak ez baitu onartu nahi Andelongo mosaikoaren euskalduntasuna... Zergatik? Testu iberikoetan ere Andelongo sekuentziaren aldaerak agertzen dira (*egiar*, *giar*, eta abar), eta baldin ontzat ematen bada Andelongo testuan *egien* forma benetan dagoela, honek esan nahi luke euskara iberieraren seme sinple bat zela. Ideia hau irentsi ezinezkoa da establishmenteko gizabanako batzuentzat (arrazoiak askotarikoak direlarik, besteak beste, *hispanofobia* zaharkitua...), beraz, ez da onartu egin eta kitto. Baina ez da zuzena honela lan egitea (gure ikuspuntutik bederen), zeren Andelongo idazkunak lehen euskal testua izateko probabilitate anitz bailituzke.

Irulegiko testuan euskal sistema grafiko propio bat nabaritzen da. Irulegiko testuan T-ren antzeko hizki bat dakusagu. Velaza epigrafistaren arabera, xehetasun hau sistema grafiko baskoniko berezi baten froga fidagarria bide litzateke eta *herrialde epigrafiko* baskoniko propio baten existentzia erakutsiko bide luke.

Hala ere, nahiko eztabaidagarria da mota honetako adierazpen bat egitea. T zeinu hori beste testu iberiko eta zeltiberiko batzuetan agertzen da: datu hau argi dago eta ez da aburu hutsa. Beraz, T hori ezin da baskoien hizki berezia izan eta ez du frogatzen garai hartan herrialde epigrafiko baskoniko diferentziala zegoenik. Puntu honetan beste albo batetik datorkigu egiazko kontua edo berezitasuna: ez dakigu zehatz-mehatz nola ahoskatzen zen T zeinu hura. Batzuen arabera /n/ edo /m/ antzeko ahoskapena eduki zezakeen, baina beste ikerlari baten iritziz (alegia, Eduardo Orduña), zeinu honek “representaría una africada predorsal propia de la lengua vasca, usada para adaptar el grupo celta [ks] o [xs].” Bestela esanez, T horren ahoskapena gutxi gorabehera gure gaur egungo tz, tx edo ts fonemen antzekoa izan liteke. Baina eztabaida zientifikoak jarraitzen du eta puntu hau argitzeke dago, oraingoz.

Irulegiko eskuko lehen lerroan zorioneko esamoldearen aldaera bat da. Komunikabide gehienetan mezu hau zabaldu egin da. Velazak eta Gorrochateguik adierazi zuten hitzaldi eta elkarrizketetan lehen lerroan sorioneku irakurtzen zutela eta hitz hau gaur egungo euskararen **zorioneko** esamoldearen antzekoa izan ahal zela, baina zalantza anitzekin eta zuhurtasuna erakutsiz. Hemendik ondorioztatu zuten lehen euskal testua izan litekeela, nahiz eta gainerako idazkunean dagoena ez duten batere ulertzen.

Egia esateko, apur bat eztabaidagarria da gauzak egiteko modu hau eta batez ere hain arinkeria harrigarrian erortzea. *Zorioneku* = *zorioneko* ekuazioa azkarregi egindako analisia dirudi eta beste hitzak zer diren jakin gaberik ausartegia da komunikabideetan iragartzea lehen euskal testua ediren izan dela. Nahiko informatua dagoen baten batek esan du *zorioneku*-aren irakurketa *paralexia* motako bat izan litekeela, hots, hodeietan aurpegiak ikustea bezalaxe: zenbait letrazko sekuentzia bat ulergarria dirudiena, baina funtsean kasualitate hutsa eta itxura engainagarrikoa.

Gauzak areago bihurritzeko, aurkikuntza hau trakets hartuz, baten batzuek atera dute euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan zabaldu behar delako ondorioztapen politikoa, zeren uste baitute Irulegiko eskuak eragina eduki behar duela gaur egungo hizkuntza-politikan... Testuan idatzitakoaren hitz bat ere ez dakigu eta beldur gaberik bizitza modernorako aplikazio praktikoak proposatzen hasten gara!!! Orduan, zer gertatuko litzateke etorkizunean deskubrituko bagenu ez zegoela euskara zaharraz idatzia? Atzera egin beharko genuke ofizialtasunean? Agian geldixeago ibili behar dugu kontu hauetan. Bestalde, Irulegiko aurkikuntza egiten ari zen aldi berean, Vianan testu zeltiberiko berriak ediren izan ziren, aurreko hamarkadetan aurkiturikoei erantsi zaizkienak. Zergatik ez du inork aldarrikatzen zeltiberieraren ofizialtasuna Sónsierran ere? Zergatik Nafarroako elementu zeltiberikoek ez dituzte hain zirrara handiak sortzen, nahiko ugariak badira ere? Uzten ditugu galdera hauek airean eta erantzun ditzala nahi duenak...

Azkenean ere, euskal filologo batzuek nabarmendu dute euskararen *zorioneko* forma hau ezin dela zaharregia izan eta gainera *-eku* > *-eko* bilakaera errefusatu behar dela (hauen artean Gorrochateguik berak). *Zoritxarrez*, ñabardura hauek zabalkunde gutxiagoko argitalpenetan geratu dira (edo behintzat ez dute hain oihartzun handia lortu imajinario kolektiboan) eta pertsona anitzek pentsatzen jarraitzen dute lehen lerroan *zorioneko* agertzen dela eta eskua hantxe zegoela aztarnategiko etxe hartara sartzen zirenei *zori ona* desiratzeko, estilo modernoko apaingarri arrunta balitz bezala.

Hala eta guztiz ere, lehen lerroa gaizki irakurria egoteko susmoak ez du esan nahi Irulegiko testua ez dela euskaraz erredaktatua. Ziurrenez idazkuna euskararen antzeko hizkuntza batez idatzia dago (agian Nafarroako euskararen arbaso urrunaz), baina oraingoz hitz bat ere ez dugu ulertzen eta ezin gara anitzez harantzago joan. Zuhurrak izan behar dugu iritzia, ondorioztapenak eta adierazpenak ateratzerakoan.

Idazkunaren esanahia oso erraza da argitzen. Weborri askotan eta interneteko foroetan *besaulkiko etimologista-samalda* izugarria agertu da, Irulegiko testua erabat deszifratuak daukatela adieraziz hagitz

hunkituak... Dirudienez, pertsona hauek guztiak gai izan dira Irulegiko testua aztertzeke eta ongi ulertzeke... bakarrik minutu batzuetan!!!

Jakina ere, adierazpen hau onartu ezinezkoa da. Irulegiko eskuko testuaren interpretazio fidagarriak urte batzuk beharko ditu, eta ez dago batere argi egun batean guzti-guztia zehatz-mehatz konprenituko dugun ala ez (behintzat, zaila izanen da ikerlarien arteko adostasun osoa erdiestea). Testuaren edukia nahiko konplexua eta arraroa da eta orain arte euskara zaharraren jakintza-maila orokorrak nahiko mugatua dirudi: une honetan pertsona bat ere ez dago munduan Irulegiko testua zuzenki konprenitzeko gai. Baldin norbaitek badiosku Irulegiko testua zalantzarik gabe deszifratu duela, arratsalde batean bakarrik, ziurrenez oker egonen da eta inozoegia izaten ariko da, ilusio hutsak eramanik.

Idazkuna zeltiberikoa da. Komunikabideren batzuetan Guillermo Gómez arkeologoaren teoriaren berri eman dute. Ikerlari honen arabera, testua ez dago euskara zaharrez idatzia, ezpada zeltiberieraz, alegia, hizkuntz indoeuropar bat penintsularen barnealdean oso hedatua. Hala ere, bere interpretazioa erabat okerra da eta ezin onartu dugu. Bere lana aztertzean erraz nabaritzen da ez duela zeltiberiera ez euskara zaharra menderatzen. Normalean nahiko erraza izan ohi da testu bat zein hizkuntzatan dagoen idatzia jakitea, bakarrik estilo fonetikoaren arabera (baita hizkuntza hori ulertzen ez badugu ere), oso argi dagoelarik Irulegiko testuan agertzen den fonetika ez dela batere indoeuroparra.

Egia da hizkien estiloa zeltiberikoa dela (puntuakin lerroak egiteko xehetasun hori eta brontzea erabiltzea), baina honek ez du adierazten testuaren edukia zeltiberieraz idatzi izan zenik. Edozein hizkuntza askotariko sistema grafikoetan erredaktatu daiteke: adibidez, munduko lehen hizkuntza, txinera, bai bere sinbolo tradizionalekin bai karaktere erromanikoekin idaztea daukagu, bigarren sistema zehatzagoa izanez arlo fonetikoan.

Irulegiko eskua ate batean iltzatu zen espirtu gaiztoen aurka babesteko edo ongietorria emateko.

Hipotesi hau hedatu egin da zenbait forotan eta egunkaritan. Baina berriro ez da batere fidagarria. Hasteko ere, eskua material guztiz garesti batekin eginga dago (brontzea), energia asko behar zen haren mineralak lurretik ateratzeko eta garbitzeko, eta ondoren fabrikazio-prozesua nahiko zaila zen garai hartako baliabideak kontuan edukiz. *High-tech* purua zen orduko mailarako eta gainera idazteko eta irakurtzeko gaitasuna bakarrik pertsona gutxitan zegoen. Beraz, hemendik ondorioztatu behar dugu Irulegiko eskua ez zela elementu “arrunt” bat eta ez zela jende xumearen kontua. Zalantzarik gabe esku hau elementu berezia zen eta erabilpen mugatua zuen: gutxienez, elite politiko edo erlijiosuaren tresna, eta ez bide zegoen etxe arrunt batean. Eskaintza sakraturen bat izan zitekeen, iragarki publiko bat edo antzeko gauzak. Baina, oraingoz dakigula, jende xumearen artefakturik ez.

Mota honetako eskuen paralelo anitz daude, egiteko arrazoiak guztiz ezberdinak izan ohi zirelarik, ziurtasun osoz. Esaterako, penintsulan beste kasu adierazkor batzuk ditugu. Hauen artean bi pieza nabaritu nahi genituzke. Lehena, Quintanilla de Somozako (León) eskua (K.o. III. mendekoa), harrizko bloke batean landua, non grezierazko idazkuna irakurri ahal baitugu, jainko gorena omentzen duena: Εἷς Ζεὺς Σέρραπης Ἰαώ ‘bat bakarra (da) Zeus Serapis Iao’.



Quintanilla de Somozako eskua

(Goian hauteman ahal da idazkuna, sinbolo astrolatikoen artean)

Tfiki-tfaka 2023

Ikusten dugunez, kasu honetan gaia erlijioetsua da eta jainkoaren batasun osoa goستن du, Zeus greziarra, Serapis egiptiarra eta Yahveh hebreoa kontzeptu bakar batean bataraziz. Bestelakoa da bigarren kasua, Tamarite de Literako (Huesca) La Vispesa deritzon aztarnategi batean ediren izan zena, K.a. III mendeko herri iberiko batean eta, beraz, aurrekoa baino askoz zaharragoa. Hemen zutarri bat daukagu, monumentu handiagoko parte hautsia, alboetan idazkun iberiko nabaria agertuz. Baina guretzat hagitiz interesgarria da zutarriko gainazalean landua dagoena, zeren hor zenbait esku ikusi ahal baititugu, Irulegikoaren antzekotsuak (guztiak eskuinekoak eta beherantz ezarriak).

Eskuak eta idazkun iberikoa La Vispesako zutarrian



Oraingoz esku hauen interpretazioa ez da erabat segurua, baina ikerlari batzuek (esaterako, Velazak berak) pentsatu izan dute *hildako etsaien esku ebakien irudikapenak* izan zitezkeela, trofeo edo suntsitzeko gaitasunaren sinbolo gisa. Zutarri hau ez bide zen ustezko hilobi baten parte, ezpada tenplu edo saildutegi baten elementua, gerrari iberiko garrantzitsu baten boterea nabarmendu nahi zukeena.

Hala ere, behin honaino heldurik, bi kasu hauen artean ezberdintasun garrantzitsu bat daukagu: lehen pieza kronologia berantiarrekoa da eta erbesteko hizkuntzaz idatzia. Ikerlariak susmatzen dute Ekialde Hurbileko merkataria baten lana izan litekeela, jende haien sinesmen henoteista-monoteista tipikoak erakutsiz. Bigarren pieza, bestalde, Irulegiko eskuaren garaikidea da (gutxi gorabehera), eta gainera hizkuntza indigenaz idatzia dago, Irulegikoaren sistema grafiko iberiko berberaz, biak gudu ankerreko testuinguru batean sortuak direlarik, dirudienez (gogora dezagun Irulegiko jendeak Sertorioren gudu basatiaren erdian aurkitzen zirela). Bukatzeko, nabarmendu behar dugu La Vispesako harriaren esku ebakiak beherantz daudelako xehetasun bitxia, guztiak eskuinekoak, Irulegikoaren antzera... Berezitasun hauek nahiko baliotsuak izan litezke Irulegiko eskuaren helburua susmatzeko. Une honetan aieru hutsen arloan mugitzen gara, baina, iritzia galdetuko balidate, esango nuke zuhurtasunez La Vispesako helburu militarra eta hilketaren zalea Irulegikoan errepikatu litekeela.



Hamsa deritzon eskuaren marrazki eskematikoa

Tfiki-ffaka 2023

Hedabideetan hagitz zabaldu da Irulegikoa *Hamsa* edo *Fatimaren eskuaren* estiloko amuletoa delako ideia, eta, izan ere, erabilgarritasun hau Quintanilla de Somozako kasuan agertzen denaren antzekoa litzateke: esan dugunez, harrizko esku honen egilea Ekialde Hurbilekoa bide zen eta eragin semitiko argia zuen. Era berean, Fatimaren eskua (askotan gorantz ezarria, Quintanillakoa bezalaxe, erne xehetasunarekin) Ekialdeko lurretan asmatu bide zen eta honek guztiak bide koherentea erakusten du Quintanillako kasurako. Baina Irulegiko eta La Vispesako jendeak ez ziren semitikoak, ezta Ekialdekoak ere, eta bestelako kezak, bizimoduak eta eredu kulturalak zituzten. La Vispesako eskuak beherantz ezarriak daude, hilak, iharrak eta ebakiak, gudu-trofeoen antzera, eta garai hartako ideologia sinbolikoan *eskuineko eskua indarraren eta trebetasunaren toki*a bezala ikusten zen: beharbada, zutarri batean etsaien eskuineko esku ebakiak jartzea eraildako etsaiei indar guztia kentzearen eta haien trebetasunaz jabetzearen egiten zen (batez ere *Beste Munduan*, hil ondoren), behin betiko erantzuteko eta kalte egiteko gaitasuna gal zezaten. Esateko moduan, “nik harrapatu diot eskua eta orain haren botere osoa nirea da, bahitu dut haren bizkortasuna...”

Beraz, kooontuz euskaltzale lehiatsuak, etxean edo atean esku famatuaren erreprodukzioak jartzen ari bazarete *zori ona* erakartzeko, zeren pieza hau gerrari odolzale baten eskaintza izan liteke, guduaren jainkoari emanikoa, Hagenbacheko (Alemania) plaken antzera (non euskara zaharraren izenak ere agertzen baitira), jainko anker hark euskaldun zaharrei lagun ziezaian etsai guztiak hilaraztera eta haien eskuak ebakitzera!!! *Vae victis!!!* Irulegiko eskua odolez eta gorrotozko indar gaiztoez beterik egon ahal da!!! Kontuz Antzinateko botere magiko izugarriekin!!!




Hagenbacheko plaka bat, guduaren euskal jainko zaharrari eskainia

Noski, ulertu bedi azken paragrafo hau modu ironikoan. Hala ere, berriz seriotan mintzatuz, La Vispesako monumentua erreferentzia gisa hartuz gero, Irulegiko eskuaren helburu militarista eta odolzalea nahiko probablea izan ahal da, neure ikuspuntu partikularretik...

Artikulu honetan zehar ikusten joan garenez, Irulegiko eskuaren kontua ez da arinkeriarekin hartzeko gaia, eta arakatu eta ikertu behar da zentzutasunez, moderazioaz eta denbora emanez adituek hurrengo urteetan erritmo lasaian aztertu dezaten. Kalibre honetako aurkikuntzak ez dira argitzen bi minutuan eta anitz izanen dira geroaldian etorriko diren ideiak, proposamenak eta interpretazioak. Beraz, eduki dezagun eroapen pixka bat oraingoz eta ikerlariak lan egin dezatela. Bizkitartean, zaletuak direnek miresten jarraitu ahal dute pieza hau eta komeni izanen zaie kalitate oneko informazioa bereiztea (aldizkari zientifikoetan agertzekoa hobetsiz), prentsa arruntetik heltzen zaiguna kontu handiagoz jasoz.

CARLOS ERRAZTI ELORZA



Adina: 63 urte

Jaioterria: Arrasate (Gipuzkoa)

Bizilekua: Lapuebla de Labarca

Noiz etorri zinen Arabako Errioxara eta zein izan zen arrazoa?

1986an heldu nintzen Lapueblara. Aurreko 2 urtetan Villanueva de Valdegobian egon nintzen maisu moduan. Urte horretan Lapueblako ikastolan lanpostu bat eskaini zidaten, eta pentsatu gabe bertara hurbildu nintzen. Euskal Herriko mapan begiratu behar izan nuen jakiteko non zegoen, tutik ere ez nekien-eta.

Familiaz gain, zerk lotu zaitu eskualde honetara?

86tik Lapueblan bizi izan naiz; hasieran aste barruan egoten nintzen alokatutako etxe batean, baina geroago hemen bertan erosi genuen pisua, eta ordutik hemen jarraitu dugu. Lagunak egin nituen berehala herrian

bertan eta Arabar Errioxako inguruko herrietan. Ikastolak berak eman dit jende asko ezagutzeko aukera, eta oso harro esan dezaket hemengoa naizela, hemengoa sentitzen naizela, hemengo errealitatean murgildurik sentitzen naizela eta asko maite dudala Euskal Herriko zatitxo hau.

Nolakoa zen garai hartan Arabako Errioxa orokorrean eta bereziki Lapuebla de Labarca (Euskararen egoera, euskararen etorkizuna, euskaltzaletasuna, ikastolak, herrikoekin harremanak...)?

Esan dudan bezala, hasiera hasieratik hartu ninduten zoragarri, gaur egungo lagunak (kuadrillakoak) eta herriko jendeak, orokorrean, beraien besoetan hartu ninduten, eta beti sentitu naiz maitatua. Garai hartan Euskal Herriko egoera nahiko gogorra zen; politikoki momentu oso gogorak bizi genituen, Arabako Errioxan ere euskal kultura eta euskara indartzeko mugimenduak nabariak ziren.

Lapueblara heldu nintzenean ikastola gaur egungo udaletxean kokatuta zegoen, eta bilera asko eta asko egin ondoren, Arabako Errioxako ikastola erreferentea Lapueblan kokatzea erabaki genuen. Garai hura oso dinamikoa izan zen: jende asko bilduta, jende asko batera helburuak lortzeko. Gogoratzen dut ondo Lapueblara heldu nintzen lehenengo eguna, 86ko iraila zen, eta oraindik klaseak hasi gabe zeuden. Udaletxera eraman ninduten ikastolako asanblada konbokatuta baitzegoen. Udaletxeko beheko solairuetan bildu ginen irakasleok eta gurasoak. Aretoa lepo bete zen. Guraso piloa bertan. Batasun inpresio ikaragarria somatu nuen bilera hartan: pertsona guztiek euren iritziak ematen, erabakiak hartzen,... Bertan ikusi nuena izugarriasko gustatu zitzaidan. Bilera amaitutakoan, gaur egun nire lagunak direnek frontoian jokatzen nuen galdetu

zidaten. Nik baietz erantzun, eta arratsalde horretan bertan frontoira joateko geratu ginen palaz jolastera. Partidaren ondoren, afaria egingo zutela esan zidaten. Partida jokatzan ari ginen bitartean, hara non esaten duen batek izugarritzko egarria zuela, eta bodegara joateko irrikitan zegoela. Bodegara heldu, eskailera jarri eta hara non ikusten dudun gora igotzen pitxar batekin. Pitxarra depositoan sartu, buelta bat, beste bat, eta kol, kol, kol,.. dena barrura. Ni eskailera ondoan nengoen begira, eta ezin nuen sinetsi ... *Baina Carlos, nora etorri zara?* Hori izan zen nire lehenengo kontaktua lagunekin... eta ardoarekin.

Urte asko eman genituen asteartero dinamika berberekin: pala partidua, afaria bodegan (bakoitzak bere afaria eramaten zuen; erdian jarri eta denok partekatzen genuen jarritakoa). Ondoren mus partida tabernan. Horrela izan da urte askotan; pala partidarekin amaitu genuen, baina oraindik elkartzan gara asteartetan elkarrekin afaltzeko. Zein jende ezagutu dudun afari horietan! Irakasleak, gurasoak, politikoak... **Zertan ikusi duzu aldatu dela gure eskualdea (onerako zein txarrerako)?**

Euskaldun kontzientzia indartu egin da ordutik hona. Euskarak eta euskal kulturak aurrerapausu handiak eman ditu. Gaur egun gure kaleetan euskaraz hitz egiten entzutea ez da batere arraroa, normala iruditzen zaigu, eta euskal kulturarekin zerikusirik dauzkaten ekintzak ugari dira. Bide horretatik jarraitu behar dugu; harro eta ozenki esan behar dugu euskaldunak garela eta Euskal Herria maite dugula.

Zein etorkizun ikusten diozu gure eskualdeari orokorrean eta euskararen normalizazioari?

Etorkizuna gure eskuetan dago, jakina. Guk egingo dugu eta ez beste inork. Arabako Errioxak bere ezaugarriak ditu: txikia da, “hegoaldekoak” gara, gure nortasuna dugu, eta horrek Euskal Herri osoa bustitzen du.



Euskaldunak, arabarrak, errioxarrak; gure nortasunaz, harrotasunez... **aurrera bolie!**



denborapasak

ACROSS

1. Gorri eta beltzez doan saskibaloia taldea
3. Euskal piraguistarik onena



DOWN

2. Munduko golf jokalaririk onena
3. Euskal txirrindularik onena
4. Irungo eskubaloia taldea
5. Laguardiako futbol taldea
6. Laguardiako futbol jokalaria



Tfiki-ffaka 2023

LBAREA

--	--	--	--	--	--	--

KXOEAT

--	--	--	--	--	--	--

XKAEA

--	--	--	--	--

TXOMAIL

--	--	--	--	--	--	--

SPKORONATE

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

STLIATEBE

--	--	--	--	--	--	--	--	--

AALIUK

--	--	--	--	--	--

ENMDIA


--	--	--	--	--	--

AZIEL

--	--	--	--	--

KFLAUUR

--	--	--	--	--	--	--



Aizkolaritza

Arrauna

Eskupilota

Futbola

Harri jasoketa

Harri zulaketa

Idi proba

Saskibaloia

Sokatira


Trontza

Txingak

A	S	A	S	K	I	B	A	L	O	I	A	A
I	M	A	G	Z	U	L	K	C	S	T	T	T
Z	G	R	W	I	O	E	F	R	O	E	D	L
K	W	R	B	B	P	V	M	L	K	S	A	X
O	S	A	T	K	L	K	I	O	A	Z	N	A
L	H	U	U	M	I	P	S	T	T	Z	B	W
A	F	N	X	W	U	A	T	N	I	O	H	X
R	C	A	M	K	J	J	O	D	R	S	W	F
I	C	N	S	I	U	R	W	P	A	F	L	W
T	T	E	R	T	T	X	I	N	G	A	K	G
Z	V	R	A	R	Z	D	D	W	F	C	V	G
A	A	G	D	Z	I	J	W	N	W	G	Q	N
H	A	R	R	I	Z	U	L	A	K	E	T	A




- BASTIDA
- BILAR
- EKORA
- ELTZIEGO
- ESKUERNAGA
- GORREBUSTO
- GUARDIA
- KRIPAN
- LABRAZA
- LANTZIEGO
- LEZA
- NABARIDAS
- OION
- SAMANIEGO



K

Non dago aita?



S

1

Zenbat denbora behar duzu lana amaitzeko?

2



Gorputzaren organo bat.

non gogoia, han zangoa

ASTEBORJA LAPUEBLAN

OSTIRALA 19

IKASLEEN TOKAPETA

- 10:15 Harrera
- 10:30 Kalejira
- 11:30 Hamaiketakoia
- 12:00 LHko 1.zikloa: sailerrak
LHko 2.zikloa: erronkak
- 13:30 Bazkaria
- 14:30 Ma non troppo
- 16:00 Agurra

LARUNBATA 20

- 12:30 Tailerrak
- 13:30 Trikopoteoa
- 14:30 Herri bazkaria

Helduen menua: 15€ / Umoratu: 8€

Itzuna onak: 1.2a ikasle lehen Ansa ikastetxean
aldizkaria: Karpotea Karpotean altxa sartuz
RS: 2035 9228 03 1030223057
(tiketak: 1.2a.ikastetxearen web orriaren gainean)

18:00 DJ Fonta
20:00 Agurra

TTIKI TTAKA Errioxako euskaldunon elkarteak



Tfiki-tfaka 2023



Ttiki-ttaka 2023

LAPUEBLA DE LABARCA

EKA BALKARIA

MAIATZAK 20, LARUNBATA

UMEENTZAKO MENUA / MENÚ INFANTIL (8€):
MAKARROIAK
OILASKOA / POLLO
NATILAK

HELDUENTZAKO MENUA / MENÚ ADULTOS (15€):
ENTSALADA
MENESTRA

SOLOMOA ERRIOXAR ERARA / LOMO A LA RIOJANA
HOSTOPILA / MILHOJAS



IZENA EMATEKO EPEA: maiatzak 12 / 12 de mayo
Ikastolan eskudiritan edo transferentziatz:
2095 3228 03 109023057

*Cada familia se autolimita a un máximo de 10 personas. / Presentar escrito en su caso a oficina.



t tiki
taka



euskaldunon elkarteak

Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera.

*Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta. Kodea _____ Tfnoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura